

Erlijosorik gabe hobeto?

La historia vivida en la Iglesia católica por las llamadas beatas o seroras, por monjes y frailes, por clérigos regulares y monjas ha tenido en el s. XIX una línea divisoria clara dentro de la vida religiosa de los países occidentales. El cierre de los conventos por la Exclaustración es una frontera. Venturas y desventuras se acumularon en ese siglo.

Eten horrek bere izena eta datak ditu: "Esklaurazioa" eta 1792/1833-40. etako urteak, Iparraldean lehenengo eta Hegoaldean gero. Orrialde hauetan behin baino gehiagotan aipatu behar izan dut hori guztia. Zer izan zen, bada, Esklaurazioa, noiz eta nola gertatu zen, Erlijosor-Instituten historia luzea bitan banatzeko?

Hazkundera itomeneraino

XVIII. mendearen bigarren partean eta garai-ko eztabaida guztien artean, Europako Erreinu zenbaitetan Koroa eta Eliza ados etorri ziren Institutu Erlijosoriekiko bere iritzian, fraide eta moja gehiegi ez ote zegoen galdetu eta erantzutean: hazkundera mugatzeko neurriak hartu zituzten. Hala ere, mendea amaitzean inoiz baino fraide gehiago zegoen Espainian (1797): 49.365 monje eta fraide, 2.056 komentu eta monasteriotan bizitzen (urte berean mojak 30.007 ziren, 1.075 Etxetan). Azken Esklaurazioari ekitean (1835), artean 30.906 gizonezko zeuden komentuetan.

Elizaren egitura demografiko hau demasekoa zen, esaten zenez.

Garrantziko beste zerbait ere ohartzekoa da: Ordena Erlijosoriek ondasun handiak zituzten beren eskuetan, mendez mende zetorkien ondare metatu baten jabe baitziren, Ordena

monakalak batez ere. Ondare erraldoia zen hori, geldirik eta salerosketa-merkatutik kanpo gordetzen zena, horrela deitutako "esku mortuetan" zegoena. Dena den, Eskeko Ordenek eskeko izaten segitzen zuten, eta badakigu aberaskeriarik gabe bizitzen zela orduan ere komentuetan. Baina eliz ondare hura, oro har, Koroaren erreforma ekonomikoetarako eragozpen serioa zen.

Eta, bien bitartean, gizartea aldatzen ari zen. Klase sozial berria zetorren gora, burgesia, sistema ekonomikoan plaza irekiago baten eske; jada gero eta gutxiago balio zuen sistema zaharrak, izan ere nobleen maiorazkoak, herrien udal-mendiak edo erlijiosoen ondasunak ezin ziren salmentara atera. Ideia berriekin eta ekonomia azkartu nahirik, burgesiak protagonismo gehiago eta azkarragoa eskatzen zuen. Horra, bada, arazo ekonomiko-soziala mahai gainean jarrita.

Eta arrazoi ideologiko politikoak aintzakotzat hartu beharra zegoen, gainera: Eliza eta Institutu erlijiosoak sistema politikoaren parte ere baziren, noski (*Erret Zaingoa*), eta Erregimen Zaharra erortzean (1789; 1808...), Liberalismo burgesak bere proposamena egin zuen: Elizak ez zuen izan behar, inondik ere, Erreinu barnean berezko Estatu bat, onartu egin behar zituen



askatasun politikoak, eta batez ere premiazkoa zen eliz ondasunak salmentara ateratzea.

Eliz *Desamortizazioa* (edo nazionalizazioa, nahiago bada), XIX. mendeko egitarau liberalaren bihotzean zegoen zerbait da, batez ere eliz ondasunak desjabetu eta enkantera ateratzeko. Arrazoi sozio-ekonomiko honek eta erabateko mesfidantza politikoak ekarri zuten Espainian Esklaustrazioa 1830.eko hamarkadan.

Fraiderik gabeko Euskal Herria

Urte batzuetan Euskal Herri osoan ofizialki ez zen fraiderik egon, Iparraldean 1792az geroztik eta Hegoaldean 1840a ondoren: gizonezkoen komentu eta monasterioak Gobernuak itxita zeuden. Iparraldean Iraultzak egin zuen hori (fraide-moja guztiak kaleratuz) eta Hegoaldean lehen Gerra Karlistak eman zuen aukera fraideen behintzat zarratzeko. Horra, bada, erlijiosoak komentuetatik kanpo, desfraidetuta.

Beraz, historia instituzional baten etena gertatu zen. Aurrera egin nahi zuten Institutuek oinarri berrietatik pentsatzen hasi beharra zeukaten etorkizuna.

1850.etik aurrera ekin zitzaion lzanberrikuntzari, hau da, Probintzia, Etxe eta fraide ohiak ahal zen moduan eta unean berriro elkarteari. Bi gertakari politiko nagusi daude hori erraztuko dutenak: bata Frantzia Napoleon III.aren politika (1852-1870), Etxe Erlijioso izanberrituei ez-ikusiarrena egingo diena (baina haiek itxi gabe); bestea Espainian Erromarekin Konkordatua sinatu ondoren (1851). Horrela ireki zitzaion zirrikitua erlijiosoen izanberritzeari.

Euskal Herriko Ordena zaharrek izanberritze horretarako sekulako gaitasuna erakutsiko

dute hurrengo hamarkadetan; horretan Euskal Herria aitzindari eta motore izango da. Jesulagun (1852), frantziskotar (1851, 1859), karmeldar (1868) eta abarrek ausarki jokatu dute Euskal Herrian, eta deiari erantzunez, gazte ugari joango da fraidegai gisa lkastetxe berrietara (Loiola, Bermeo, Markina, etab.). Zalantzarik gabe, Erlijiosoen Ordena zaharren izanberritze honek indartsu jokatu zuen jasandako ezbeharrei aurre egitean.

Baina datu berriago bat ere badago azken Gerra Karlistatik aurrera (1875...): Kongregazio modernoena. Erakunde gazteak dira, bakoitza ere hedapen-gogo handiarekin datorrena. Gehienak emakumezkoenak dira, baina gizonezkoen Kongregaziorik ez da falta. Eliza latindar osoan gertatzen ari den hazkunde baten barruan dago, noski, Euskal Herriko hau; baina apenas inon ikusten den hemengoaren parekorik, halakoxea da, izan ere, hemengoan indar eta ahalegina.

Hegoaldeari Iparraldeko sakabanaketak ere laguntzen dio, bi data ezberdinetan ixten baitira Iparraldean Etxe ireki berriak (1880, 1901), eta ihesi datozen fraide-mojek maiz asko Hegoaldean aurkitu zuten egoitzak landatzeko lekuri: Lasalletarrak, Gurutzeko Alabak, Probidentziako Ahizpak, etab.

Horrekin guztiarekin Aro berria hasten da euskal Institutuetan. Mila urte lehenago hasitakoa garai berri baten aurrean dago, eta euskal gizartean inoiz baino sakonago txertatzea lortu zuten Institutu Erlijioso hauek.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580